

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Alkatearen dekretua, 2019ko irailaren 13koa, Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareko Eskola Kontseiluko lehendakaritza eskuordetzeari buruzkoa

2019ko maiatzaren 26ko tokiko hauteskundeen ondorio den Udalbatza eratu delarik, erakundeak parte hartzen duen kide anitzeko organoetan hura ordezkatzeko duten pertsona fisikoen izendapena berraztertu beharra dago.

Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sarearen Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiaren 55. artikuluan dago jasota Haur Hezkuntzako Udal Eskolen Sareko Eskola Kontseiluaren osaera, eta a) idatz zatian ezarrita dago alkatea edo berak eskuordeturiko zinegotzia izango dela kontseiluko lehendakaria.

Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 124. artikuluan xedatzen duenez, bestalde, alkateak bere funtzioetako batzuk zinegotzien esku utz ditzake, dekretu bidez.

Horrenbestez, hauxe

Xedatu dut

Estibaliz Canto Llorente zinegotziari eskuordetzea Haur Hezkuntzako Udal Sareko Eskola Kontseiluko lehendakaritza.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko irailaren 13an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE